

**INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA****2063**

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Teknologia eta Industria Garapenerako sailburuordearena, Elkartzen Programako laguntzak 2008ko ekitaldian emateko deialdia argitaratzeko dena. Laguntza horiek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ematen dizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei, kanpo sustapeneko ekintzak egin ditzaten.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduak Elkartzen Programa arautu zuen. Programa horren bidez laguntzak ematen zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo sustapeneko jarduerak egin ditzaten.

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008ko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-ataletatik aterako dira, abenduaren 28ko 15/2007 Legean ezarritakoaren arabera (EHAAren 250. zenbakia, abenduaren 31koa).

Aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da hor iragarritako diru-laguntzak 2008ko ekitaldian emateko deialdia egitea.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 7. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Elkartzen Programako laguntzak 2008ko ekitaldian emateko deialdia egitea da ebazpen honen xedea. Elkartzen Programaren bidez laguntzak ematen zaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei, kanpo-sustapeneko jarduerak egiteko. Programa hori, bestalde, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduaren bidez arautu zen.

Xede horretarako, guztira, 900.000,00 euro bideratuko dira, abenduaren 28ko 15/2007 Legeaz onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan 2008ko ekitaldirako eta gai horretarako ezarritako aurrekontu-kredituari jarraituz.

Diru-kopuru hori aldatu ahalko da, betiere diru-laguntzei buruz ebazpena eman aurretik, eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren ikusi ondoren, eta, baldin eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak beste programa batzuk burututakoan aurrekontuko diru-kopururik ahitu gabe geratzen bada. Horrelako egoerarik gertatuz gero, horren berri eman beharko da, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea-

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO****2063**

RESOLUCIÓN de 25 de marzo de 2008, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a Entidades sin Ánimo de Lucro para la realización de actividades de promoción exterior en el marco del «Programa Elkartzen», para el ejercicio 2008.

La Orden de 15 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, desarrolla el «Programa Elkartzen» de ayudas destinadas a Entidades sin Ánimo de Lucro para la realización de actividades de promoción exterior.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, aprobados mediante la Ley 15/2007, de 28 de diciembre (BOPV n.º 250, de 31 de diciembre).

De conformidad a lo establecido en el artículo 7 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2008.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 7 de la Orden de referencia

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas previstas en la Orden de 15 de marzo de 2005 de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el «Programa Elkartzen», sobre ayudas destinadas a Entidades sin Ánimo de Lucro para la realización de actividades de promoción exterior.

Para este fin se destinará un total de 900.000,00 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, aprobados mediante la Ley 15/2007, de 28 de diciembre.

Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desa-

ren ebazpen bidez. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (Feder) programa hau finantzatzeko lagundu du 2007-2013 eperako.

2. artikulua.– Betekizunak.

Eskabidea egin nahi dutenek, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduan aurreikusitako laguntzak jasotzeko, agindu horren 3. artikuluan ezarritako betekizunak konplitu beharko dituzte.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabidea egiteko arauzko eredia Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean bertan jaso ahal izango da, baita Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Bilbon, Donostian eta Gasteizen dituen lurralde-bulegoetan ere; bestela, interneteko helbide honetan ere jaso ahal izango da: www.ej-gv.net.

2.– Eskatzaileek leku hauetan aurkez ditzakete eskabide-orria eta gainerako agiri osagarriak: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean; Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lurralde historiko guztietan dituen lurralde-bulegoetan; eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean hasiko da; amaitu, berriz, 2008ko maiatzaren 23an.

AZKEN XEDAPENAK

Lebendabizikoa.– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

rrollo Industrial. Asimismo, el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (Feder) para el periodo 2007-2013 contribuye a la financiación del presente Programa Elkartzen.

Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 15 de marzo de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, deberán cumplir las condiciones previstas en el artículo 3 de la Orden de referencia.

Artículo 3.– Solicitudes y plazo.

1.– El modelo normalizado de solicitud podrá recogerse en el propio Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en las Oficinas Territoriales del citado Departamento de Industria, Comercio y Turismo en Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz o en la dirección de internet: www.ej-gv.net.

2.– Los solicitantes deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo de cada Territorio Histórico o en cualquiera de los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el 23 de mayo de 2008.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2008.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.